



**JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-  
BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA  
FUNDAZIOAREN ETIKA ETA JOKABIDE  
KODEA**

*[2023/12/19]*

## AURKIBIDEA

1.	Gure kodearen helburua eta aplikazioa .....	3
2.	Printzipioak eta balioak .....	4
3.	Jokabide arauak.....	5
3.1.	Ematen ditugun zerbitzuetara sarbide erraza izatearekiko eta gardentasunarekiko gure konpromisoa .....	5
3.2.	Gure harremana langileekin, Bizkaiko herritarrekin eta beste interes talde batzuekin .....	6
3.2.1.	Bizikidetzeta eta errespetua .....	7
3.2.2.	Erantzukizuna ekintza eta erabakietan .....	8
3.2.3.	Bikaintasun profesionala .....	8
3.2.4.	Laneko osasuna eta segurtasuna.....	8
3.2.5.	Berdintasuna. Diskriminaziorik eza.....	9
3.2.6.	Hizkuntza eskubideak.....	10
3.3.	Gure harremana hornitzaile, bezero eta hirugarrenekin.....	10
3.4.	JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOArekiko harreman guztietan datu pertsonalak babestuak izateko eta eskubide digitalak bermatzeko Bizkaiko herritarrek eta gainerako interes taldeek duten eskubidearekiko konpromisoa.....	11
3.5.	Bateraezintasunak eta interes gatazkak.....	13
3.6.	Ustelkeriaren aurkako borrokarekin dugun konpromisoa.....	15
3.6.1.	Abegikortasun keinuak, opariak eta arretak .....	16
3.6.2.	Dohaintzak eta babesak .....	17
3.7.	Gure konpromisoa ingurumenarekin.....	18
3.8.	Aktiboen erabilera onarekiko dugun konpromisoa .....	18
3.9.	Zerga iruzurra saihesteko neurriak eta baliabide finantzarioak zuzen kudeatzeko konpromisoa .....	19
3.10.	Terrorismo finantzaketaren eta kapitalak zuritzearen aurkako borrokarekiko gure konpromisoa .....	20
3.11.	Jabetza intelektuala eta industrialaren errespetatzea.....	20
II. kapitulua:	Kontrola eta ikuskaritza.....	21
	Zaintza eta Kontrol Organoa eta Compliance officerra .....	21
III. kapitulua:	Gure kodea betetzea eta hedapena ematea .....	23
	Indarraldia.....	23

Erantzukizunak.....	23
Zehapen araubidea .....	24
Kodea argitaratzea eta hedatzea .....	24
Betetze adierazpena.....	25

## 1. Gure kodearen helburua eta aplikazioa

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAren helburua Bilbao Orkestra Sinfonikoaren zuzendaritzaz, mantentze-lanaz, zaintzaz eta sustapenez arduratzea da. 2008. urtean sortu zen, eta bere jarduna musika esparruan garatzen du; Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Bizkaiko foru sektore publikoa osatzen duten entitateetako bat da.<sup>1</sup>

Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzu publikoen prestazioan pieza gako garen aldetik, Bizkaiko herritarren banakako zein talde mailako arazoak konpontzea da gure izateko arrazoia; hala, zerbitzu publikoaren bokazioak, eredugarritasunak eta bikaintasunak ere gure jardueraren DNA n egon behar dute eta gure eguneroko jarduna gidatu behar dute.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAren Etika eta Jokabide Kodearen (aurrerantzean “kodea”) xedea orientazio gisa funtzionatzea da, aipatutako helburua lortzeko, errespetatu beharreko balio eta printzioak ezarriz eta balio eta printzipioak gauzatzeko jokabide arauak zehaztuz.

Kode hau **funsezko tresna** da JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAren **betetze eta erantzukizun kultura finkatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatuta eta JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAk jarduera osoan babestua**. Horrez gain, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAk ezarritako **Compliance programaren** giltzarri pieza ere bada; enpresa esparruan legez kanpokoak saihestu, ekidin eta antzemateko programa da, Zigor Kodean ezarritakoa betez eta Foru Aldundiaren eta foru entitateen printzipioak garatuz eta betez.

Gure kodea JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kide guztiei aplikagarria izango da. Eta, kode honen ondorioetarako, entitatea osatzen duten pertsona

---

<sup>1</sup> 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartu zuena.

guztiak hartzen ditugu **“foru entitateko kide”** (edo, besterik gabe, **“kide”**) gisa, dela entitateko langileak direlako, edozein araubidetan, dela patronatuko kide direlako.

Horregatik, kodea kide guztiei jakinaraziko zaie, eta horren inguruko beharrezko formazioa emango da; horrez gain, foru entitateen zentro guztietan egongo da eskuragarri. Etorkizunean foru entitatera iritsiko diren pertsonen ere kodea jasoko dute, harrera prozesuan.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek, Bizkaiko Foru Aldundiko goi kargudunak badira, kode honetan ezarritakoaz gain Interes gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko azaroren 21eko 5/2018 Foru Arauan jasotakoa bete beharko dute.

Ataletan aipatutako legedia oinarritzko araudi gisa hartu behar da; adierazpen modura aipatzen da, kontsultarako erreferentziak emate aldera. JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAk kasuan kasuko berariazko araudi aplikagarria eguneratu eta osatuko du.

## 2. Printzipioak eta balioak

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek **balio eta printzipio inspiratzaile** hauek gidatuta jardungo dute beti:

- **Zerbitzu publikoaren bokazioa**

Foru entitatearen zerbitzua jasotzen duten pertsonetikiko une oro dedikazio jarrera mantentzea, Bizkaiko herritarren banakako zein talde mailako arazoak konpontzeko jardunez.

- **Gardentasuna eta irekitasuna**

Gobernu irekiko printzipioak bultzatuz jardutea, entitatearekin harremanetan izaten diren herritarrak eta gainerako interes taldeak inplikatur ematen diren zerbitzuen definizioan, egikaritzean eta ebaluazioan.

- **Erantzukizuna eta kontuak ematea**

Erabakien eta ekintzen erantzule izatea, kudeaketaren kontu emanez eta etengabe erantzunez.

- **Integritatea**

Modu sistematiko eta iraunkorrean jardutea, objektibotasunez erabakiak hartzean eta esparru juridikoa eta pertsona guztiak errespetatuz eta, hala badagokio, edozein irregulartasunen berri izanez gero, hala jakinaraztea.

- **Inpartzialtasuna**

Beti irizpide independentea izatea, interes partikular oro albo batera utziz.

- **Zintzotasuna**

Adierazpenen egiazkotasuna eta funtzioak betetzetik eratorritako adierazpen eta ekintzen arteko koherentzia zaintzea.

- **Bizikidetz, errespetua eta pluraltasuna**

Kasuan kasuko funtzioak betetzean eta jarrera pertsonalarekin errespetua eta bizikidetz oinarritzat hartuko dituen ingurune profesionala indartzea, herritarrekiko eta entitateko kide guztiekiko harremanetan tratu zuzen eta adeitsua izanik. Pertsonen arteko pluraltasuna eta irisgarritasuna zentzu zabalean erraztea, edozein pertsonaren bizitza pribatuan sartzeari saihestuz.

- **Konfidentzialtasuna**

Kasuan kasuko funtzioak betetzean jakindako informazio, datu eta txosten konfidentzialak sekretupean gordetzea.

- **Hizkuntza eskubideak**

Hizkuntza eskubideak bermatzea, euskararen normalizazioa sustatzea eta erabilera bultzatzea.

### 3. Jokabide arauak

#### 3.1. Ematen ditugun zerbitzuetara sarbide erraza izatearekiko eta gardentasunarekiko gure konpromisoa

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAK **informazio publiko garrantzitsu oro herritarren esku jarriko du**

Erakundeen gardentasunari esker, herritarren aurrean kontuak emateko eta kontrolerako sistemak hobetu daitezke eta,aldi berean, gobernu irekia sustatzen dute, herritarren arazo eta kezkek hobeto hartzen dituen. JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAK, **Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua betez**, entitatearen zerbitzuak ezagutzera ematea eta erakundea eta kudeaketa nolakoak diren ulertzea ahalbidetuko duen

informazio publikoa herritarren esku jartzeko konpromisoa hartzen du, gardentasun atariaren bitartez.

- Informazio instituzionala
- Informazio juridiko-normatiboa
- Informazio ekonomiko-finantzarioa eta ondarearena
- Kontratazioak eta dirulaguntzak
- Zerbitzu eta politika sektorialak
- Giza baliabideak

Informazioa eguneratuta, irisgarri eta zorrotz agertuko da, eta, era berean, informazio publikoa eskatzeko sarbide eskubidea bermatuko da. JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAK, halaber, informazioa herritarren esku formatu irekian eta berrerabilgarrian jartzeko apustua sustatzeko konpromisoa hartzen du, **Open Data Bizkaia**<sup>2</sup> datu irekien foru atariaren bitartez, zuzenean edo hirugarrenekin lankidetzan zerbitzu publiko berri eta hobeak sortzeko bide modura, barne efizientzia eta gardentasun ereduaren iraunkortasuna sustatzeko eta informazioa hobeto ikusi eta ulertzen lagunduz.

#### **Sarbidea zerbitzuetara eta hizkera erraza**

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek herritarrek eta gainerako interes taldeek zerbitzuetara sarbidea izatea errazteko egingo dute lan, herritarren eta interes taldeen beharrian eta exijentzien aurrean **izaera hartzailera eta jarrera proaktibo** izango duen erakunde ikuspuntutik. Hainbat neurri hartuko dira, besteak beste, kanalak erraztea, hizkera erraza eta uneoro helburuko publiko guztietara egokitutako hizkera erabiltzea, erraza eta ulerterraza, irakurketa errazeko estandarrak aintzat hartuz.

### **3.2. Gure harremana langileekin, Bizkaiko herritarrekin eta beste interes talde batzuekin**

---

<sup>2</sup> Bizkaiko Foru

Aldundiaren datu irekiera erregulatzen duen dekretua; kode hau egin den unean prestaketa prozesuan egon da.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko **kideek jokabide etiko** eredugarria oinarritzat hartuz jokatuko dute kasuan kasuko lanak egiten, zintzotasunez, inpartzialtasunez eta objektibotasunez jardunez kasuan kasuko funtzioak betetzean eta esparru juridikoa errespetatuz langile guztiekin eta herritarrekin dituzten harremanetan.

### 3.2.1. Bizikidetzatza eta errespetua

**Bizikidetzan, aniztasunean eta errespetuan oinarritutako Bizkaia indartzea, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideen jokabidean eta funtzioak betetzean.**

Herritarrak, interes taldeak zein JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko parte diren edo entitatearekin kolaboratzen duten pertsonak adeitasunez, behar den errespetuz eta duintasunez tratatu beharko dira.

Horrenbestez, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek:

- **Aniztasuna** errespetatuko dute, **pertsonen inklusioa eta aniztasuna** sustatuz, publikoaren zerbitzura dagoen erakunde gisa une oro izan behar ditugun konpromisoekin lerrokatuta.
- Pertsonen artean elkarrekiko errespetua, tolerantzia eta elkartasuna bultzatuko dute **benetako bizikidetzarako** oinarri modura, beste pertsona batzuekiko adeitasunik gabeko tratua eta jokabideak saihestuz, maila pertsonalean zein kasuan kasuko funtzioak betetzean.
- Leku guztietan eta une oro arretaz, **zuzentasunez eta behar den adeitasunez** tratatuko dituzte herritarrak zein entitateko langileak eta forma eta hizkuntza zuzenak erabili beharko dituzte errespetuan oinarritutako harremanetarako berme modura.
- Dagokien lana betetzean, **zerbitzuen prestazioan herritarrei kalitatezko arreta zuzena** ematea bermatuko dute; diskriminazio motaren bat sor dezakeen jokabide edo jardun oro baztertu egin beharko dute.

#### *Gogoan izan...*

Langile guztien betebeharra izango da:

- Pertsona guztiak adeitasunez eta errespetuz tratatzea, bizikidetzatza zuzenerako oinarri modura.
- Lengoia eta forma zuzenak erabiltzea, errespetuan, adeitasunean, begirunean, enpatian edo lasaitasunean oinarritutako harremanak eraikitzea sustatuz.
- Bizikidetzatza zuzena bermatzea, langileen eguneroko jokabidearen bitartez, pertsonen artean tolerantzia, elkarrekiko errespetua,

---

aniztasuna edo elkartasuna bezalako balioak bultzatuz.

- Edozein motatako praktika diskriminatzaileak eragiten dituzten jardun edo jokabide mota oro saihestea (generoa, sinesmena, ideologia, arraza, orientazio sexuala, desgaitasuna, etab.)
- Jarrera irekia agertzea esparru horretan jasotako hobekuntza iradokizun eta proposamen oro modu aktiboan entzuteko

### 3.2.2. Erantzukizuna ekintza eta erabakietan

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek behar den dedikazio eta diligentziaz beteko dituzte dagozkien funtzioak, jardun horretatik eratorritako ondorio eta erantzukizunak une oro onartuz.

Funtzioak betetzean hartutako erabaki eta ekintzen aurrean une oro erantzun egin beharko dute, araudi eta erakunde esparrua errespetatuz.

### 3.2.3. Bikaintasun profesionala

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek eska daitekeen profesionaltasunik handienarekin egingo dute lan, etengabe hobetzeko eta gaitasun profesionalak garatzeko, bikaintasuna lortzea helburu, herritarrei kalitatezko zerbitzuak emateko.

Horretarako, kideek:

- Jarrera proaktiboa izango dute **etengabeko prestakuntzarekiko**, sakontasun handiagoa behar duten ezagutza eta gaitasun profesionalak garatzeko konpromisoa haien gain hartuz.
- Emandako zerbitzuen kalitatea eta funtzioak hobetzeko garatuko diren **ekimen eta jardunbide onen aurrean jarrera irekia** izango dute.

### 3.2.4. Laneko osasuna eta segurtasuna

Lanpostuetan osasuna eta segurtasuna zaintzea JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAn lan egiten duten pertsona guztien ardura da.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOak bertan lan egiten duten pertsona guztien osasuna babestu eta segurtasuna bermatuko duten lan baldintza proposak



mantentzeko konpromisoa du,<sup>3</sup> laneko arriskuen prebentzioaren inguruan indarrean dagoen araudian ezarritakoa zorrotz betez. Une oro osasuna babestea eta segurtasuna mantentzea denon ardura da; horregatik, gure betebeharra da:

- Segurtasun neurriak behar bezala erabiltzea eta langileen artean erabiltzea sustatzea.
- Segurtasun gorabeheren inguruan kasuan kasuko laneko osasun eta arriskuen prebentzio zerbitzua ohartaraztea.

*Gogoan izan...*

Langileek ez badituzte betetzen indarreko araudiak aipatutako laneko arriskuen prebentzio arloko betebeharrak, orduan lan ez-betetze modura hartuko da Langileen Estatutuan aurreikusitako ondorioetarako, edo, hala badagokio, administrazio publikoen zerbitzura dauden funtzionario publiko edo langileen diziplina araubideari buruzko kasuan kasuko araudian aurreikusitako ondorioetarako.

### 3.2.5. Berdintasuna. Diskriminaziorik eza.

**Pertsona guztiak berdintasun baldintzetan eta behar den errespetuarekin tratatu behar dira.**

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kide guztiek genero, arraza edo etnia, adina, erlijio, sexu orientazio, ideologia edo beste edozein kausa dela medio sor daitekeen diskriminazio oro saihesteko betebeharra daukate.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloan, indarrean dagoen araudia eta, zehazki, ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua errespetatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, baita, hala badagokio, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOari eragiten dion neurrian egingo den foru plangintza ere.

Horrez gain, entitateko kideek JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko Berdintasun Plana bete beharko dute; bidenabar, behar diren antolaketa tresnak izango dituzte diskriminaziorik eza bermatzeko eta diskriminazio egoerak, egonez gero, behar bezala kudeatzeko. [Adibidez, Lan eremuan sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko eta esku hartzeko protokoloa].

<sup>3</sup> 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuetan aurrea hartzekoa.

### *Zein esparrutan gerta daitezke diskriminazio egoerak?*

---

Langileak eta beste kargu batzuk hautatu, kontratatu eta promozionatzean, baita ordainsari edo beste edozein lan baldintzatan ere, ez badira ezarritako irizpide objektiboak betetzen.

#### 3.2.6. Hizkuntza eskubideak

Hizkuntza eskubideak bermatzea, euskararen normalizazioa sustatzea eta erabilera bultzatzea. Barne kudeaketan eta entitateko langileekiko eta herritarrekiko harremanetan elebitasuna sustatzea.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko langileak Bizkaiko Foru Aldundian eta foru sektore publikoan hizkuntza ofizialak erabiltzea arautzen duen araudiaren mende daude.

Horrenbestez, foru entitateko kideek euskara erabiltzea aktiboki bultzatuko dute Bizkaiko gizartearen hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Euskara erabili eta normalizatzea sustatzea lagungarria da, halaber, kohesio soziala eta bizikidetzaren linguistikoa sustatuko duen ingurunea bultzatzeko.

Horretarako, honako hau egin beharko da:

- **Euskara jakin eta erabiltzea sustatzea.**
- Euskara erabiltzea sustatzea, **bi hizkuntza ofizialak foru entitatearen barne kudeaketan** integratuz (komunikazioak, lan tresnak, pertsonen kudeaketa, etab.).
- **Herritarren hizkuntza eskubideak** bermatzea, herritarrekiko harremanetan dauden zerbitzu, espazio eta jardueretan euskararen presentzia eta erabilera baliatuz.
- Hizkuntzaren araberako **diskriminazio** oro sustatuko duen edozein jokabide **saihestea**.

### 3.3. Gure harremana hornitzaile, bezero eta hirugarrenekin

**Hirugarrenekiko harremanak merkatu baldintzetara egokitu behar dira**

Zintzotasunak eta gardentasunak gidatu behar dituzte JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAK hornitzaile, bezero eta hirugarrenekiko izango dituen harremanak, eta erabat debekatuta egongo da zerbitzuak ematean abusu baldintzak onartzea edo

eskatzea. Horrez gain, indarrean dauden kontratazio publikoko eta lehiakortasuna zaintzeko araudiak bete beharko dituzte, eta erabat debekatuta egongo dira lehiakortasuna muga dezaketen praktikak, esaterako informazio komertziala lehiakideekin trukatzea edo akordioak egitea, nagusitasun posizioaz abusatzea edo indarrean dagoen legediak baimentzen ez dituen beste jarduera batzuk.

Horren haritik, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAK berarekin harremana duten entitateek kode hau ezagutzea sustatuko du, eta antzeko konpromisoak har ditzaten bultzatuko du. Horrez gain, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAREKIN harremana izango duten hirugarrenak kontratu bidezko harremanetan ezarriko diren klausulak betetzearen mende egongo dira, klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuen ingurukoak.

*Lizitazio publiko eta pribatuetan balizko manipulazioaren zantzuak*

- Lizitatzaille kopuru txikia
- Lizitatzaille berberaren eskaintza inkoherenteak
- Boikot susmoak
- Eskaintza ez lehiakorrak
- Jokabide eredu susmagarriak enpresa lizitatzaileren artean
- Justifikatu gabeko azpikontratazioa enpresa lizitatzaileren artean
- Pertsona fisiko berberak aurkeztutako eskaintzak
- Idazketa, formatu eta akats berdin-berdinak dituzten eskaintza ekonomikoak
- Lizitatzaileren arteko aldi baterako enpresa elkartea aparteko justifikaziorik gabe

**3.4. JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAREKIKO harreman guztietan datu pertsonalak babestuek izateko eta eskubide digitalak bermatzeko Bizkaiko herritarrek eta gainerako interes taldeek duten eskubidearekiko konpromisoa.**

Informazio konfidentziala zaindu egin behar da, baita datu pertsonalak eta informazioaren segurtasun babestea bermatzea ere, barne prozedurak, politikak eta legezkoitasuna betez.

**Konfidentzialtasuna**

Entitateko kideek erantzukizunez erabiliko dute haien funtzio profesionalak betetzean jaso dezaketen informazioa, une oro informazioaren **konfidentzialtasuna errespetatuz**, JUAN CRISOSTOMO DE

ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAren interesak zainduz eta entitatearekin harremanak dituzten gainerako entitateek ere berdin jokatzera zainduz.

#### **Pribatutasuna: datuen babesa eta informazioaren segurtasuna**

Herritarren, langileen edo beste edozein pertsona fisikoren **datu pertsonaletara** sarbidea izanez gero, datu pertsonal guztiak jaso, eta datu pertsonalen bilketari, tratamenduari eta suntsitzeari dagokionez indarrean dagoen araudian aurreikusitakoa errespetatuko da. Arlo horretan indarrean dagoen araudian, <sup>4</sup>foru edo barne prozedura eta politiketan<sup>5</sup> ezarritakoa une oro errespetatuko da.

Entitateak, halaber, erabiliko duen **informazioaren segurtasuna bermatzeko** prebentzio izaera izateko konpromisoa hartu du, esparru horretan arriskuak saihesteko eta informazioaren segurtasuna babesteko behar diren antolaketa neurri eta neurri tekniko oro ezarriz, bat etorritz foru mailan ezarriko diren <sup>6</sup>edo entitateak onartutako berariazko analisi, prozedura eta politikekin.

#### *Zer dira datu pertsonalak?*

---

Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio, esaterako izena eta abizenak, telefono zenbakia, curriculum, hatz marka, ordenagailu baten IPa, geokopapena, etab.

#### Gogoratu...

---

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAn Jokabide Informatikoaren Kodea 2018. urtetik aplikatzen da. 14. artikuluan posta elektronikoa helburu eskusiboki profesionaletarako erabili behar dela ezarri zen, eta modu zuzenean erabiltzeko jarraibideak finkatu ziren.

Nola antzeman ditzakegu mezu elektronikoko gaiztoak?

1. Mezu elektronikoko bat jaso gero, beti igorlearen egiazkotasunari erreparatu beharko diogu, posta elektronikoko helbidea aztertuz.
2. Bestalde, lehenago parte hartu dugun mezuen hari baten erantzuna iruditu arren, begiratu behar dugu gaia ez dela bat etortzen. Izan ere, mezu gaiztoetan aipatu ohi dira isun edo beste arau hauste batzuk,

---

4

2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, 2016ko apirilaren 27koa, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, datu pertsonalen tratamenduari eta datuen zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko.

5 Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 15eko 11/2018 ERABAKIA, zeinaren bidez datuak babesteko ardezkaria deritzon pertsona sortu, izendatu eta haren estatutu juridikoa arautzen baita.

6

Urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duena; Kontseiluaren 2017ko martxoaren 21eko Erabakia, Bizkaiko Foru Aldundiaren informazioaren segurtasun politika onartu zuena; Kontseiluaren 2018ko martxoaren 28ko Erabakia, Jokabide Informatikoaren Kodea onartu zuena, besteak beste.

---

fakturak edo jaso behar dugun pakete bat, eta ez dute loturarik izaten aurreko mezuekin; isun, arau hauste, faktura edo pakete ez bestelako gaietarako buruzkoak ere izan daitezke.

3. Mezu gaizto hauetako gehienek webgune esteka bat edo batzuk izaten dituzte; ez dugu horietan klik egin behar, gure ekipoa birusen bat instalatuko lukeelako.

Postaren inguruko edozein zalantza izanez gero, Jokabide Informatikoaren Kodea kontsultatu behar dugu, gure jarduna gidatzeko eta zuzen jokatzeko ari garela ziurtatzeko.

### 3.5. Bateriaezintasunak eta interes gatazkak

Indarrean dagoen araudian aurreikusitako bateraezintasun araubidea errespetatu behar da, eta interes gatazken egoerak sor daitezkeela pentsatuz gero, erabakiak hartzea baztertu beharko da.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko langileak Administrazioaren Zerbitzuko Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitakoaren mende daude<sup>7</sup>. Bestalde, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko gobernu organoko kide diren pertsonak, eta Foru Aldundiko goi kargudunak badira, Interes gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauaren mende egongo dira.

Foru entitateko pertsona kide guztiek haien postuko baldintza eta jarduerari lotutako bateraezintasunen araubidea arautuko duen berariazko legedia errespetatu beharko dute.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kide guztiengandik une oro indarrean dagoen eta aplikagarria zaien araudiari dagokionez egunean egotea espero da, bete behar dituzten funtzioen arabera.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek lan egiten duten edo foru zerbitzuak ematen dituzten foru entitatearen interesak zainduko dituzte, interes gatazka oro saihestuz.

Interes gatazka existitzen dela ulertuko da zuzenean edo zeharka elkartzen direnean, batetik, interes orokorra edo foru entitatearen beraren interesa, eta, bestetik, foru erakundeko kidearen interes

---

<sup>7</sup> 2. artikulua. Aplikazio esparrua

pertsonal edo pribatu propioa edo hirugarren pertsonekin edo zuzeneko senideekin partekatutako interesa.

Honako hauek JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideei **lotutako pertsona** modura hartuko dira:

- a) Ezkontidea edo pareko afektibitate harremana daukan pertsona.
- b) Senideak, laugarren odol ahaidetasun edo afinitate mailara arte.
- c) Hirugarren pertsonetikiko partekatutako interesak.
- d) Erakunde batean kidea, bere ezkontidea edo pareko afektibitate harremana daukan pertsona, edo bigarren odol ahaidetasun edo afinitate mailara arteko senideak, edo interes partekatutak dituzten hirugarren pertsonak administrazio edo zuzendaritza kargu bat badute edo edozein kausagatik ordainsaria jasotzen badute, betiere, gainera, zuzenean edo zeharka, eragin nabarmena badute erakunde horren eragiketa eta finantzaketa erabakietan.

Adibide modura, egoera hauetan JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideren baten **interes gatazka** sor daiteke:

- a) Maila pertsonalean edo familia mailan transakzio edo eragiketa ekonomikoren batean inplikaturik egotea, lan egiten duen edo zerbitzuak ematen dituen foru entitatearen parte bada.
- b) Foru entitate horren izenean kontratuak negoziatu edo formalizatzea kidearekin lotutako pertsona fisikoekin edo pertsona juridikoekin, kideak edo berari lotutako pertsona batek zuzendaritza kargu bat badu, edo akziodun nabarmena edo administraria bada.
- c) Txosten teknikoak prestatzen esku hartzea, ondoren Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzak lortzeko kidearekin lotutako pertsona fisikoentzat edo pertsona juridikoekin, non kideak edo berari lotutako pertsona batek zuzendaritza kargu bat duen, edo akziodun nabarmena edo administraria bada.

Lan erabakiek edo erabaki profesionalek JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOaren **interesen defentsarik** onena izan behar dute oinarri; hala, ez dute familia harremanen edo harreman pertsonalen eraginik izango, ezta foru entitateko kideen beste edozein interes partikularren eraginik ere.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek une oro independentziaz, profesionaltasunez eta erakundearekiko leialtasunez jokatu behar dute, interes propioak edo hirugarrenen interesak alde batera utzita; ez dute esku hartuko edo eraginik izango foru entitateei kalte egin diezaikeen erabakietan eta interes gatazkaren bat egonez gero, erabaki

horiek planteatzen diren bileretan ez dute parte hartuko eta gatazka horri kalte egin diezaiokeen informazio konfidentzialik ez dute jasoko.

Gai horri lotutako edozein alderdiri dagokionez, langileek Compliance officerrengana jo behar dute, Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 18ko 14/2020 Foru Dekretuan foru kargudun publikoetarako ezarritakoa gorabehera, interes gatazken eta bateraezintasunen arloko Berme Organoa arautzen duena.

**Compliance officerrarekin** harremanetan jartzean, honako hau adierazi behar zaio: (i) interes gatazkek pertsonalki edo lotutako pertsona baten bitartez ukitzen dion, hala badagokio, identifikatuz; (ii) interes gatazka eragin duen egoera, hala badagokio, xedea eta proiektatutako erabakiaren edo eragiketaren baldintza nagusiak adieraziz; (iii) kopuru edo ebaluazio ekonomikoa, gutxi gorabehera; eta (iv) kasuan kasuko harremanak zein pertsona edo departamenturekin hasi diren.

#### *Gogoan izan...*

---

Laneko erabakietan, merkataritza edo enpresa erabakietan eragina izan dezaketen harreman pertsonalen (laguntasuna, senideak, etab.) kasuetan, komunikazioaren eta Compliance officerrari jakinarazi beharraren garrantzia; erabaki horietan edo kudeaketetan parte ez hartzea, Compliance officerrak berariaz eta aurretiaz baimendu badu salbu. Kideak horren inguruan jarduteari uko egin behar dio, harik eta kontsultaren kasuan kasuko erantzuna jaso arte.

### 3.6. Ustelkeriaren aurkako borrokarekin dugun konpromisoa

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAK irmo gaitzesten du **ustelkeria jardun oro**, hala badagokio aplikagarriak diren lege xedapenen aurka egiteaz gain gure kodean islatutako printzipio etiko eta balioen aurkakoa ere bada, printzipio eta balio horiek giltzarri baitira herritarrei zerbitzua emateko.

- Sektore publikoaren esparruan, funtzionario publiko bati edozein balio duen edozein etekin justifikatugabea (finantzarioa edo ez) zuzenean edo zeharka eskaini, ordaindu, hitzeman, eman, onartu edo eskatzea **eroskeria** da, kokapena edozein dela ere, araudi aplikagarriaren ezarritakoaren kontra eginez, dagozkion funtzioak betetzearekin lotuta modu zehatz batean

jokatzeagatik edo ez jokatzeagatik pizgarri edo ordainsari modura. Eroskeriak opari edo ordainsari forma izan dezake, eta beste pertsona baten aldeko ekintza desegoki bat egin ondoren ordain daiteke.

- Sektore pribatuaren esparruan, **eroskeria** gerta daiteke foru entitateko zuzendaritzako, administrazio kontseiluko kide, langile edo kolaboratzaile batek, berak edo beste pertsona baten bitartez, edozein izaerako justifikatu gabeko etekin edo abantaila bat jaso, eskatu edo onartzen duenean, berarentzat edo hirugarren batentzat, kontraprestazio modura, bidegabeki beste norbaiten alde egiteko, salgaien salmenta edo erosketan edo zerbitzu kontratazioan edo harreman komertzialetan.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kide guztiek mota guztietako ustelkeria egintzetan parte hartzea saihesteko betebeharra daukate.<sup>8</sup>

Hain zuzen ere, arau hauek denok zaindu behar ditugu:

### 3.6.1. Abegikortasun keinuak, opariak eta arretak

Egoera potentzialki gatazkatsu ugari daude; tartean, abegikortasun keinuak, opariak eta arretak eskaintzea edo onartzea, kasuaren inguruabar zehatzei erreparatuz (esaterako, noiz entregatzen diren, zein balio ekonomiko duten, etab.) eroskeria gisa har daiteke.

Abegikortasun keinuak, opariak eta arretak, oro har, ezin dira onartu. Opari eta arreta kasuetan, balio sinbolikoa dutenak eta ordezkari itzaz instituzionalaren barruan daudenak baino ez dira onartuko. Tarteka zaila izan daiteke arreta edo opari bat eta eroskeria egintza bat bereiztea; horrenbestez, adi egon behar da egoera gatazkatsuak antzemateko.

Bidenabar, horren inguruko zalantzak Compliance officerrarekin argitu daitezke.

#### *Noiz onar dezaket opari bat edo arreta?*

Ezaugarri hauek betetzen dituztenean:

- Ez bada egin etekin bidegabera lortzeko edo eragina izateko.
- Ez bada egin enpresa abantaila edo negozio jakin bat lortzeko

---

<sup>8</sup> Foru entitateko kideak langile funtzionario modura har daitezke zigor ondorioetarako; izan ere, Zigor Kodeak langile funtzionario modura hartzea zentzu zabalean definitu du.



---

edo horri eusteko (negozio testuinguruaren ohiko inguruabarretatik haratago).

- Modu publiko, ireki eta gardenean eskaini edo jaso bada.
- Ez bada egin mesede tratua lortzeko edo trukatzeko.
- Ezin badu interes gatazka sortzea eragin.
- Ez badira eskudirutan, opari txartel edo dirua ematea ahalbidetzen duen beste euskarri batean egindako opariak, horiek berariaz debekatuta baitaude.

### 3.6.2. Dohaintzak eta babesak

#### **Dohaintzek eta babesek ezarritako bideak jarraitu behar dituzte.**

Dohaintzak eskaini edo onartzea eta babes kontratuak sinatzea, kasuaren inguruabar zehatzei erreparatuz (esaterako, dohaintza emailearen / babeslearen izaera, zenbatekoa eta funtsen helburua etab.) eroskeria egintza gisa har daitezke.

Horren haritik, dohaintza eta/edo babes oro onartu aurretik, Compliance officerrak idatzizko baimena eman beharko du, eta zalantzak berarekin ere argitu ahalko dira. Horretarako, beharrezkoa izango da Compliance officerrarekin harremanetan jartzea (ahal dela, barne informazio kanalaren bitartez, BIS Barne Informazio Sistemaren prestatutakoa); egoera azaldu eta labur deskribatu behar da eta gaiari buruzko aholkua edo baimena eskatu.

---

#### *Babes kontratu baten aurrean aintzat hartu beharreko bost gai*

1. Barne araudi aplikagarria birpasatu al duzu?
2. Onartzeko eta formalizatzeko ezarritako barne prozedura jarraitu al duzu?
3. Kasuaren inguruabar zehatzei erreparatuz, ekintza ez-bidezko modura edo errealitateari ez dagokion ekintza modura uler daitekeela uste duzu?
4. Babesa harreman komertzial bat lortu edo mantentzearen mende dago?
5. Hartzaileak uler dezake babesarekin batera Administrazioaren partetik etekin edo kontrapartida bat jasoko duela (esaterako, kontratu publiko edo pribatu bat adjudikatzea, etab.)?

### 3.7. Gure konpromisoa ingurumenarekin

#### Denok egin behar dugu lan gure ingurumen eragina murrizteko

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAk, Bizkaiarekiko duen konpromiso soziala dela bide, ingurunea babestu eta jasangarritasunean laguntzeko helburua du, dagozkion betebeharrak garatzean ingurumen eragina murriztuz, Foru Aldundiko eta foru entitateko kideak prestatuz eta sentsibilizatuz, eta kontsumo arduratsua sustatuz.

Ingurumena errespetatzea denon betebeharra da; horregatik, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideengandik espero da, arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzeaz gain, arreta berezia jar dezaten energia eta baliabideak arduraz erabiltzeko kudeaketan, ingurumenean ahal bezain eraginik txikiena sorrarazte aldera.

Horrez gain, foru entitateko kideek Bizkaiko kultura ondarea zuzen zaintzea ere gogoan izango dute haien jokabideari eta funtzioak betetzeari dagokienez.

#### *Ingurumen eragina murrizteak zein neurri dakartza?*

---

Baliabideen kontsumo arduratsua, esaterako ura, elektrizitatea, zarata eta argi kutsadura murriztea, baita hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea ere, har daitezkeen beste neurri batzuen artean.

### 3.8. Aktiboen erabilera onarekiko dugun konpromisoa

#### Baliabideak eraginkortasunez, efizientziaz eta modu ekonomikoan erabiltzea

Foru entitateko kideen betebeharra da aktibo guztiak arduraz erabiltzea (horrek barne hartzen ditu ondasun materialak -eraikinak, makineria, tresnak, ibilgailuak, etab.-, immaterialak -lizentziak, etab.- eta baliabide informatikoak -gailu mugikorak, ordenagailuak eta mota guztietako osagai teknologikoak, esaterako fotokopiagailuak, softwarea, hardwarea, Interneta, posta elektronikoa korporatiboa, etab.), foru entitateek langileen esku jartzen dituztenak lana betetzeko; ezin dira erabili lan prestazioaren edukiarekin loturarik ez duten beste helburu batzuetarako.

Foru entitateko kideen betebeharra izango da:

- Baliabideak arduraz eta efizientziaz kudeatzea, justifikaziorik gabe erabiltzea edo xahutzea saihestuz.
- Foru entitateen eta Foru Aldundiaren artean sor daitezkeen sinergiak aprobetxatzea.

### 3.9. Zerga iruzurra saihesteko neurriak eta baliabide finantzarioak zuzen kudeatzeko konpromisoa

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAK **baliabideak ahal bezain eraginkor eta efiziente kudeatzeko konpromisoa hartu du, legezketasuna zorrotz betez eta erantzukizun eta gardentasun printzipioei jarraituz.** Kontabilitate, administrazio eta finantzen sail edo departamentuetan lan egiten duten kideei bereziki eskatuko zaie gai ekonomiko, finantzario, kontabilitate eta zerga gaietan indarrean dagoen araudia zorrotz betetzeko.

Foru entitatearen informazio finantzarioak modurik argi, zehatz eta egiazkoenean irudi **fidela** eskainiko du.

Nolanahi ere, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek ez dute inolaz ere ez foru entitateko kontabilitate eta ekonomia informazioa distortsionatu, ezkatatu edo asmo txarrez aldatuko, nori zuzenduta dagoen edozein dela ere.

Jardueraren informazio ekonomikoa egiazkoa izango da, eta kudeaketako kasuan kasuko aplikazio informatikoan jasoko da.

Egingo den ordainketa orok **faktura (edo agiri legal baliokidea) izan beharko du**, kasuan kasuko hornidura edo zerbitzuaren ardura duen arduradunak **behar bezala balioztatuta**, eta, aldi berean, **aurrekontua duen eskaera edo kontratu** batetik eratorritakoa, **aldez aurretik adostutakoa, bat etorritik kontratazio arloko jarraibide eta prozedurekin** (barne araubidez zein legez eska daitekeelako).

***Ez da baldintza hauek betetzen ez dituen ordainketarik egingo:***

---

- Faktura edo agiri legal baliokidea egotea
- Kasuan kasuko hornidura edo zerbitzuaren ardura duen arduradunak balioztatzea
- Aurrekontua duen eskaera edo kontratu batetik erortzea, aurretiaz adostutakoa, bat etorritik kontratazio arloko jarraibide eta prozedurekin

### 3.10. Terrorismo finantzaketaren eta kapitalak zuritzearen aurkako borrokarekiko gure konpromisoa

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek arreta berezia jarri beharko dute terrorismo finantzaketa eta kapitalak zuritzea prebenitzeko arloko legedi aplikagarrian jasotako betebeharrak betetzeko.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kide guztiek, baina batez ere kontabilitate, administrazio, finantza atal eta atal komertzialera atxikitakoek, foru entitateekin negozioak egin nahi dituen hirugarren oro ezagutu eta identifikatu beharko dute, bat etorritik jarduteko barne protokoloetan ezarritakoarekin, eta behar bezala identifikatu ez diren eta jarduera profesionala legez kanpoko izateko susmoak dituen hirugarrenekin eragiketak egitea (erosketak, salmentak eta bestelako eragiketa komertzialak) saihestuko dute.

**Debekatuta dago legez kanpoko funtsak ezkutzea**, ustez legezko diru bihurtzea edo terrorismoa edo delituak babesteko erabiltzea. Horretarako, aldetan zein datuak aldatzean, bezero/hornitzaileari kasuan kasuko **banku kontuaren titulartasuna frogatzeko exijituko zaio**.

#### Ez fidatu inoiz...

---

Premiazko eskaerak dituzten mezu elektronikoen, dirua mugitzea eskatzen badute edo kasuan kasuko ordainketa egiteko kontu korrontea aldatzea aipatzen badute, eta beti Compliance officerrari esan behar zaio.

#### Banku kontuaren titulartasuna egiaztatu egin beharko da, baldin eta...

---

- Hornitzaile/bezero berri batek alta ematen badu
- Hornitzaile/bezero batek banku datuak aldatzen baditu

### 3.11. Jabetza intelektual eta industrialaren errespetatzea

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOaren jabetza eskusiboko jabetza intelektual eta industrialaren arduraz eta erakundearen onerako erabili behar da, balizko kalte, galera edo lapurreta saihesteko ahalik eta arreta handiena erabiliz.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek entitatearen eta hirugarrenen jabetza intelektuala eta industrialia errespetatuko dute; ez dituzte gainerakoen sorkuntzak erabiliko, ez norberaren ez entitatearen onerako, ziur jakin gabe erabiltzeko aukera emango duten eskubideak behar bezala erosi direla.

**Berariaz debekatuko da foru entitateek markak, patenteak, know-howak, logotipoak, ikus-entzunezko edukiak** edo beste edozein sorkuntza bidegabeki erabiltzea; soilik horietan ezarritako helburuetarako erabili beharko dira.

**Emaitzak asmatzea edo faltsutzea, plagioa eta legez kanpoko kopiak onartezinak dira.**

## II. kapitulua: Kontrola eta ikuskaritza

Bizkaiko Foru Aldundiko goi kargu izaera duen JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kideek, kode honen II. eta III. kapituluan ezarritakoaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 18ko 14/2020 Foru Dekretuan jasotakoa bete beharko dute, Interes gatazken eta bateraezintasunen arloko Berme Organoa arautzen duena.

### Zaintza eta Kontrol Organoa eta Compliance officerra

Compliance programa ezartzearen ondorioz, Zaintza eta Kontrol Organoa sortzearen alde egin da, aipatutako programa zuzen ezarriko dela ziurtatzeko; Compliance officer delakoa organo horren parte izango da, eta entitateko kideekin hitz egingo duen organoko ordezkaria izango da. Compliance officerraren eta Zaintza eta Kontrol Organoko kideen izendapenak, ordezkapenak eta kargu uzteak berariaz eta behar bezala jakinaraziko zaizkie foru entitate bakoitzeko kide guztiei.

Compliance officeraren funtzioak, batez ere, honako hauek izango dira: (i) kode hau egunerokotasunean aplikatzean sor daitezkeen zalantza puntualak argitzea; (ii) BISen arduradun fisikoa den aldetik, ustezko ez betetzeen komunikazioak jaso, kudeatu eta, hala badagokio, ikertzea; (iii) Compliance gaietan hartutako neurrien egikaritzea egiaztatzea; eta (iv) egindako lana azaltzea eta Zaintza eta Kontrol Organoari horren berri ematea, bereziki programaren ez betetzeen inguruan, baita kontuan izan beharreko arrisku berriak agertzean ere.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kide guztiek eskatzen zaien lankidetzatza, dokumentazioa eta informazioa eman behar diete Compliance officer eta Zaintza

eta Kontrol Organoari, haien funtzioak zuzen bete ditzaten (bereziki ausazko kontrolak egiten direnean eta/edo balizko ez betetzeak ikertzen direnean).

Kide guztiek jakin behar dute, kode honen, protokolo/prozedura/ berariazko jarraibideen eta lege aplikagarrien aurkako jokabideen berri izanez gero, bereziki delitu eta administrazio arau hauste larri eta oso larrien arloan, orduan JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko Barne Informazio Sistemaren prestatutako kanalen bitartez jakinarazi behar dutela.

Komunikazioak anonimotasunez edo identifikatuta egin ahalko dira eta, nolahi ere, emandako informazioaren eta informatzailearen nortasunaren konfidentziasuna babesteko erabateko bermekin; gainera, informazio emaileak babes legala ere badu jakinarazpen horrek ekarritako balizko errepresalia ororen aurrean. BISen funtzionamendu, berme, eskubide, betekizun eta irismenaren xehetasunak deskribatuta jaso dira KOMUNIKAZIOAK ETA INFORMAZIOAK KUDEATZEKO PROZEDURA BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN (BIS) ESPARRUAN ETA COMPLIANCE ARLOKO ZALANTZA ETA KONTSULTEN AZALPENA dokumentuan, JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko GOBERNU ORGANOAK onartutakoa.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko BISera sarbidea izatea edozein pertsonarentzat eskuragarri dago, webgunean horretarako sortutako lekuan, helbide honetan: <https://berrieman.bizkaia.eus/es/web/BOS>; bertan sistemaren berme, kanal, funtzionamendu eta irismenari buruzko informazio guztia dago.

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAak komunikazio datu guztien erabateko konfidentziasuna bermatuko du (gertaerak informatzailea, kaltetutako pertsona), eta datuen tratamendua datu pertsonalen babes eta jabetza intelektualaren arloetan indarrean dauden legediarekin bat etortzea ere bermatuko du. Fede oneko komunikazioak egiten dituzten pertsonen eskubideak babestu egingo dira, bereziki errepresaliarik eza bermatuz.

#### *Gogoan izan...*

---

Komunikazioak eta gardentasunak ia beti balizko etorkizuneko arazoak saihesten dituzte. Jokabide jakinen bat kode honen aurkakoa izatearen inguruko zalantzarik izanez gero, kontsultatu Compliance officerrarekin.

## III. kapitulua: Gure kodea betetzea eta hedapena ematea

### Indarraldia

Onartzen denetik, kode hau foru entitatearen araudian integratuko da, eta indarrean egongo da kodea balio gabetzea, bertan behera uztea edo eguneratzea onesten ez den bitartean.

### Erantzukizunak

**Entitateko kide guztien erantzukizuna da kodean ezarritakoa ezagutzea eta betetzea, baita ez betetzeaz ohartaraztea ere.**

JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko kide guztiek betebeharrak dituzte:

- Gure kodean ezarritakoa ezagutzea eta betetzea, baita kasuan kasuko eginkizunak garatzean aplikagarria den indarreko legedian eta politiketan ezarritakoa ere.
- Gure kodea eta legedi orokorra betetzeari dagokionez jokabide eredugarria izatea, bereziki foru entitateen goi zuzendaritzetan eta gobernu organoetan daudenen kasuan.
- Gure kodeko edo indarrean dagoen legediko xedapenak ez betetzearen susmo edo ezagutzak jakinaraztea, Barne Informazio Sistemaren prestatutako kanalen bitartez.

Foru Aldundiari eta foru entitateei erasan ahal dieten arriskuak ezagutzeko eta gure kodeko eta barne araudiko aurreikuspenen arabera erreakzionatzeko informazio iturri nagusietako bat da.

- Egoera bati aurre egiteko moduez edozein zalantza Compliance officerrari planteatzea, gure kodeko, politiken eta/edo araudiaren edukia ez betetzeko arriskuak egon badaitezke.

### Barne Informazio Sistema

---

- Gure kodeko eta indarrean dagoen legediko xedapenen aurkako ekintzaren bat egin ahal izan dela jakin edo susmatuz gero, BISen bitartez berehala jakinarazi behar da.
- Ez betetzeak modu anonimoan jakinaraz daitezke; nolana ere, beti konfidentzialtasunez tratatzen dira, eta fede onez eta bidezko zantzetan oinarrituz egin behar dira.

- JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOAK edozein komunikazio egiten duen pertsona orori bermatuko dio, betiere fede onez egin bada, ez duela inolako errepresaliarik jasoko. Hain zuzen ere, ikerketan zehar zein ikerketa bukatzean ez da informatzaileari bere ibilbide profesionalean kalte egingo dion erabakirik edo enplegu edo lan harremana uztea eragingo duen erabakirik hartuko. Babesak garatuko diren ikerketa prozesuak bukatu ondoren ere iraun dezake.

Une oro Compliance officerrengana jo ahalko da, kodearen inguruko kontsulta edo zalantzak galdetzeko.

#### Zer egin behar dut komunikazio bat jasotzen badut?

Barne Informazio Sistemako arduradunari horren berri eman beharko diozu, eta berak adieraziko dizu zein urrats eman behar dituzun. Ez duzu ezer manipulatu, deskargatu, inprimatu edo aldatu behar, eta ezagutu duzun informazioa babestuta gorde behar duzu; ezingo duzu inorekin partekatu. Gogoan izan konfidentzialtasuna ez mantentzea eta sekretu betebeharra haustea falta zigorgarria dela.

## Zehapen araubidea

Kode honetan ezarritakoa betetzen ez bada, zehatu egingo da, eta xedatuko diren ondorioen mende egongo da.

Entitateak berehala erreakzionatuko du kode honetan ezarritakoa betetzen ez den kasuetan, indarrean dagoen legedian ezarritako parametroen barruan, kasuan kasuko lege eta diziplina neurriak hartuz, gertatutakoaren larritasunaren eta izaeraren arabera, eta hitzarmen kolektiboan edo edozein lege araudi aplikagarritan ezarritako termino, prozedura eta gainerako baldintzetan.

## Kodea argitaratzea eta hedatzea

Kodearen edukia edozein unetan kontsultatu daiteke.



Gure kodea JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOko pertsona guztien esku dago, baita edozein pertsonaren esku ere, kasuan kasuko enpleguaren atarian. Beharrezkoa bada, berrikusi eta eguneratu egingo da, sortutako araudi aldaketa edo barne inguruabarren arabera, eta bete behar duten guztiei horren berri emango zaie.

## **Betetze adierazpena**

Estandar etikoak eta jokabide arauak betetzea JUAN CRISOSTOMO DE ARRIAGA-BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA FUNDAZIOaren helburu estrategikoetako bat denez, kide guztiek kode honen edukia ezagutu eta errespetatzea espero da. Bidenabar, foru entitatearekin harremana daukaten hornitzaile, bezero eta hirugarrenei dagokienez, kodearekin lerrokatutako jokabideak izatea espero da.

-----PATRONATUAK ONARTUA 2023/12/19AN-----